

2019rako ordenantza fiskalak KPIaren arabera igo dira, %2,3

Erredakzioa Amezketa

Amezketako Udalbatzarrak, urriaren 31n egindako bilkuran, aho batez onartu zituen 2019ko ordenantza fiskalak. Edozein herriarrek 30 laneguneko epean egoki ikusten dituen alegazioak egin ahal izango ditu. 2019. urterako, 2018an bezala, Kontsumorako Prezioen Indizea (KPI) izan da kontuan, oro har, ordenantza fiskalak osatzeko garaian. Zehazki Gipuzkoako abuztuko urte artekoa hartu da, % 2,3koa hain zuzen ere (iaz %1,7 izan zen). «Bestela, eta zergaz zerga joanda, esan behar da 2019. urterako aldaketak ez direla nabarmenak», azaldu dute udaletik.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga KPIa igoko da, eta iaz ezarritako familia ugarienezako hobaria mantenduko da. Zerga honetan udalak berritasun bat ezarri du: %50eko hobaria zergaren kuota osoan, Bizigune eta Asap programetan sartzen diren etxebizitza guztientzat, programa horietan sartuta egoten diren bitartean.

Trakzio Mekanikoko Ibilgai-luen gaineko zerga %2,3 igoko da. Ingurugiroari kalte gutxiago eragiten dioten turismo, autobus eta kamioi motako ibilgai-luentzat %40ko hobaria zehaztu du.

Bestalde, Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergaren karga tasak ere KPIa igoko dira. Hemen, bi hobari daude: Bizigune eta Asap programetan daudenentzako, eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoa egitearen ondorioz egin behar diren obren inguruan.

Tolosa bitarteko bidegorria itxita, gaur eta bihar

ALEGIA // Alegia eta Tolosa arteko bidegorrian egin behar dituzten artapen lan batzuk direla eta, gaur eta bihar, aipatu bidegorri zati hori itxita egongo da 08:00etatik 17:00etara bitartean. Ordutegi horretatik kanpo erabilgarri egongo da eta ostiral arratsaldetik aurrera normaltasunez egongo da erabilgarri.

Autobusa antolatu dute Altuna III.aren finala ikustera joateko

AMEZKETA // Azaroaren 18an jokatuko du Jokin Altunak Ezkurdiaren aurkako Lau eta Erdiko Txapelketako finala Iruñeko Nafarroa Arenan. Amezketatik autobusa antolatu dute, eta egunean bertan 15:30ean aterako da, Beartzana ondoko aparkalekutik. Pertsona bakoitzak hiru euro ordainduko ditu, eta hauek autobusera igotzerakoan kobratuko dira. Izena emateko azken eguna azaroaren 15a izango da, osteguna, 10:00ak arte. Herriko tabernetan emango ahal izango da izena. Bestalde, gaurtik aurrera erosi ahaliko dira finala ikusteko sarrerak, 10:00etatik aurrera. Sarrerak *entradasfron-ton.com* webgunetik bakarrik eskuratu ahal izango dira. Prezioak 40 eurotik 100 euro bitartean izango dira.

Bedaioako azokako zozketaren irabazlea ez da oraindik agertu

BEDAIO // Pasa den igandean egin zen Bedaion azoka, eta bertan azokako produktuen saski bat sari bezala duen zozketa egin zuten. Zenbaki sariduna txartel urdineko 771 da, eta bere jabeak 688 60 83 63 zenbakira deitu dezake saria jasotzeko.



Koldo Izagirre, Karmele Gorroño eta Irene Irureta, argitalpenen aurkezpenean. ATARIA

Izagirrek ipuinetako protagonista bihurtu du Altzoko Handia

Koldo Izagirrek egindako testuei irudiak jarri dizkiote Karmele Gorroñok eta Irene Iruretak; bi liburu atera dituzte, euskaraz zein gazteleraz, Erein argitaletxearekin

Erredakzioa Altzo

Koldo Izagirre idazleak bi ipuin liburu argitaratu ditu, Altzoko Handia protagonista dela, Erein argitaletxearekin. *Altzoko Handia eta Kutixiren gezurrak*, eta *Altzoko Handia eta Kutixiren pianoa* dira argitalpenen izenburuak, eta euskaraz zein gazteleraz atera dituzte. Irrimarra marka osatzen duten Karmele Gorroño eta Irene Iruretarenak dira liburueta irudiak.

Koldo Izagirrek aurretik izan du Altzoko Handiarekin lotura. Duela zazpi urte, David Azurza musikari altzotarrak antzerki-opera bat egiteko ideia izan zuen, Altzoko Handiaren bizipenak gaitzat hartuta, eta Izagirrek egin zuen libretoa. Bestalde, Altzoko Udalak Handiaren inguruko ibilbide bat osatu du herrian, panel batzuen bidez, eta bertako

testuak ere Izagirrek egin zituen. Oraingoan, baina, Altzoko Handia ipuinen protagonista da, bilduma bati hasiera eman dioten bi alerekin.

Ipuinak ez daude oinarrituta datu historikoetan, Izagirrek azaldu duenez: «Handia ez da antzina bizi izan zen norbait, gaur egun batetik bestera dabilen pertsona apal eta sentikorra baizik». Haserretzen ere bada kiela gehitu du Izagirrek, eta horretarako gaia ipuinetako beste protagonistak emango dio: Kutixi izeneko neskato txiki bat. «Kutixi, egia esan, manipulazaila samarra dugu, eta bere kapritxoak lortzeko lagun ezin hobea du Altzoko Handia, batzuetan negar egiten badu ere beste batzuetan mundua jateko gosea sortzen baitzaio».

Istorio fantastikoen barruan sailka litezkeen arren, ipuinen

mamia ez dagoela anekdotan, anekdotaren inguruko jarreretan baizik, esan du Izagirrek: «Gizartearen eta gizartearen normaltasunean sartzen ez diren artekoa da gatazka. Kutixi ez baita diziiplina erraz onartzen duenetarikoa, eta Handiak, handia izateagatik, besterik gabe, ikara sortzen baitu».

Idazleak gaineratu duenez, bi kontabide dauzkate Altzoko Handiaren eta Kutixiren ipuinek: «Irudiena da bata eta pertsonaien solasena da bestea. Iru diek, izan ere, ezin hobekiago aurkezten dute egoera orriz orri, istorioaren interpretazio libre eta osagarrian». Bestalde, solasak zorrotzak direla, errimatuak zenbaitetan, eta tarteka kopla txikia dituztela kantagarri esan du Izagirrek. Azkenik, haurrei zein helduei begira egindako argitalpenak direla gaineratu du.



Uzturpe Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen ohiko batzar nagusirako deialdia

EGUNA: 2018ko azaroaren 29a.

ORDUA: 18:30ean, lehenengo deialdian. 19:00etan, bigarren deialdian.

TOKIA: Ibarrako Kultur Etxean